



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
Carmelo Ayoroa Hualde
Marcelino Bazterrica Alchu
María Milagros Erreguerena Vera

2014ko urriaren 30ean, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO 2 BILKUREKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkurako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

Marcelino Bazterricak galdetu du F.G.ren gaiari buruz (UB 9 izeneko unitatean urbanizatu eta emateko betebeharrak konplitzeko egindako eskaintza). Proposamenari uko egitearen arrazoiak azaldu zaizkio. G. jauna bilera batera deitzea erabaki da, gaia aztertzeko.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. I.P.P.k lizentzia eskatu zuen, 2 poligonoko 925 partzelara doan bidea konpontzeko. Obra horiek lurzoru urbanizaezinean egin nahi direla kontutan hartuz, aldeko txostena ematea eta inguruaren gaineko eraginen baimena eskatzea erabaki du Udalbatzak (4/2005 Foru Legearen 25. artikulua).

2. Gestión Ambiental de Navarra, S.A.k baimena eskatu du “Mendaur hezegunearen berreskurapena, Life-Tremendal proiektua”ren C 1 ekintzaren barne lan hauek egiteko: itxitura egin eta argibide-etaulak jarri 5 poligonoko 39 partzelan. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da lanak egiteko baimena ematea GANASari.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. LIZENTZIA DEUSESTZAT JOTZEKO PROZEDURA.

2014ko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran erabaki zen, *Apeztegia* etxeko bigarren solairuan 2 balkoi eraikitzeke emandako lizentzia deusestzat jotzeko prozedurari hasiera ematea, legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman zelako (Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostena nahitaezkoa eta loteslea da; lizentzia txostenarik gabe eman zen eta geroago emandako txostena, obraren kontrakoa izan zen) eta erabakiaren berri ematea interesdunei.

J.J.E.V.k eta R.U.O.k aurkeztutako alegazio-idatziak aztertu ondoren, kontutan hartuz gora jotzeko errekurtsua jarri zuela U. jaunak Kultura Zuzendaritza Nagusiko txostenaren



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

aurka, 2014ko abuztuaren 28ko Osoko Bilkuran erabaki zen, lizentzia deusestzat jotzeko prozedura etetzea aipatuko errekurtsioaren ebazpena izan arte.

Kulturako zuzendari nagusiaren 286/2014 ebazpenak ebatzi du errekurtsioa eta erabaki du 2014ko martxoaren 4ko eta 2013ko urriaren 10eko txostenak baliogabetzea eta 2010eko abenduaren 10eko txostena berrestea. 2010eko txosten hark dio 2 leihoak luzatzen ahal direla eta ateetan bihurtu, bainan hegalkina daukaten balkoiak eraiki ez.

Ondorioz, 2012ko urriaren 4ko Osoko Bilkuran emandako lizentzia, 2 balkoi eraikitzeko *Apeztegia* etxeko bigarren solairuan, larraina aldera dagoen fatxadan, erabat deuseza jarraitzen du izaten: *Apeztegia* etxeko fatxadan esku hartu ahal izateko, Kultur Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeko Ondare Arkitektonikoaren Atalaren aldeko txostenaren beharra ezarri zuten baliogabetua izan den Hirigintza Planak eta berriz indarra hartu duten Planeamendurako Arau Subsidiarioak.

Aurrekariak ikusirik, eta 30/1992 Legearen 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Espedientea ebazteko erabaki-proposamena onestea: 2012ko urriaren 4an emandako obra-lizentzia deuseztatu, lege ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman zelako: Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostena nahitaezkoa eta loteslea da, eta emandako txostena obraren kontrakoa izan zen.

2. Aldeko irizpena eskatzea Nafarroako Kontseiluari.

3. Lizentzia deusestzat jotzeko prozeduraren etendura mantentzea aipatuko irizpidea izan arte. Etendura honekin moztu zen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 102.5 artikulua jartzen duen epea.

4. Erabaki honen berri ematea espedientean interesatu bezala agertzen diren guztiei.

Milagros Erreguerenak ez du erabaki honetan parte hartu.

4. ZENBAIT ESKAERA.

1. Aho batez erabaki da M.L.E. baimentzea, Udaletxeko sabaian zumba ikastaroa emateko (ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara).

2. Aho batez erabaki da, 250 euroko diru-laguntza ematea Saharaztan Elkarteari, *Oporrak Bakean* proiekturako.

Mikel Gerekak ez du erabaki honean parte hartu.

3. F.E.A.k baimena eskatu zuen ardi purinak botatzeko komunalean. Udalbatzak oniritzia eman zuen 2 poligonoko 490 partzelan botatzeko, beharrezkoak diren baimenak lortu eta gero. Nafarroako Gobernuko Mendiko Zerbitzuak baimena eman du, salbuespen gisara eta baldintzekin. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da baimena ematea E. jaunari,



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

purinak botatzeko 2 poligonoko 490 partzelan, Mendiko Zerbitzuak jartzen dituen baldintzak betetzeko betebeharrarekin.

4. Aurtizko bestak antolatzeko diru-laguntza eskatu zuen E.A.k. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da bestako kontuak aurkezteko eskatzea, laguntzako diru-kopurua erabaki ahal izateko. 2013ko diru-laguntza onetsi zenean (2013ko abenduaren 19ko Osoko Bilkura), ondoko hau erabaki zen: *“Bestak antolatzen dituen batzordeak kontuan hartu beharko du, Udalaren diru-laguntza murriztuko dela 2014 urtean, eta merkeago egin beharko dituztela bestak. Iturengo bestako gastua murriztu egingo da ere.”* Aurtengo Iturengo bestak %23,43ko beherapenarekin egin dira, iazkoekin konparatuz. Beraz, aurtengo diru-laguntza portzentai horretan murriztuko da gutxienez.

5. SISSECUR SEGURIDAD SLk lizentzia eskatu du, Mendaurko basilizan antena eta atzipen-puntua jartzeko, Iturengo udalerrinari wifi estaldura emateko. Agiriak aztertu ondoren, gaia mahai gainean uztea erabaki da, behar den bezala aztertzeko.

6. B.U.G.k baimena eskatu du, joaldunen irudia erabiltzeko saltzeko prestatzen ari den antzar-joko eta kartetan. Aho batez erabaki da irudia erabiltzeko baimena ematea U. andreari, Iturengo Udalak dituen eskumenen barruan.

5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko irailaren 17koa, J.M.M.ri lizentzia eman ziona, 18 metro karratuko egurtegia eraikitzeko 1 poligonoko 240 partzelan; 2014ko urriaren 9koa, J.I.ri lizentzia eman ziona, *Iñigonea* etxeko fatxadak pintatzeko; 2014ko urriaren 9koa, J.R.B.ri lizentzia eman ziona *Eskiñea* etxeko fatxada eta teilategalak pintatzeko; 2014ko urriaren 9koa, *Sotillenekoborda* izeneko borda erreteiltzeko lizentzia eman ziona J.A.M.ri; 2014ko urriaren 9koa, *Iopeitzenea* etxeko fatxadak pintatzeko lizentzia eman ziona M.L.ri; 2014ko urriaren 13koa, Nafarroako Gobernuak Mendiko Zerbitzuari baimena eman ziona, sasiak kentzeko lanak egiteko *Arrixelai* parajea —lusail komunala—; 2014ko urriaren 13koa, U.E.ri baimena eman ziona, 2 poligonoko 155 partzelako borda (*Bordatxar* parajea) etxeko ukuilua bezala erabiltzeko zaldi batentzat; 2014ko urriaren 20koa, I.A. eta X.S.i 1.000 euroko fidantza itzultzea erabaki zuena; 2014ko urriaren 22koa, 1 poligonoko 202 partzelan eraiki duen bigarren etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona E.A.ri; 2014ko urriaren 28koak, langile langabetuak kontratatuzko lanak eta aurrekontuak onetsi zituztenak.

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Aho batez erabaki da Malerrekako Euskara Zerbitzua baimentzea, Iturengo eskolako gela bat erabiltzeko astean behin, bertso eskolako klaseak emateko.

2. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Lurrealdearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 935/2014 Ebazpena, 3. hertsatzeko isuna jarri ziona F.E.ri; Lurrealdearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 948/2014 Ebazpena, hertsatzeko isuna jarri ziona J.A.E.ri; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —A.U.na—; Kantauriko Ur-Konfederazioaren Ebazpena, 2014ko irailaren 23koa, *Igenko Errekatik* ura aprobetxatzeko



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

baimena eman ziona Igengo Erabiltzaileen Erkidegoari; Mendiko Zerbitzuko zuzendariaren 642/2014 Ebazpena, sutarako egur loteak ateratzeko lanak baimendu zituenak.

3. Idazkariak irakurri du Hezkuntza Baliabideen zuzendari orokorraren 601/2014 Ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia ebatzi duena, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauzatu ahal ditzaten. Ingeleseko gela berria eraikitzeko obrak egiteko diru-laguntza eskatu zuen Iturengo Udalak. Diru-laguntzarik gabe geratu da: aurkeztutako 78 eskaeretatik 62. postuan dago puntuazio zerrendan, eta lehenabiziko 16ak izan dira diruz lagunduak.

4. Idazkariak irakurri du Kontserbazio Zerbitzuak eman zuen txostena 2014/421030 espedientean, Iturengo zeharbidean sortzen diren trafiko-arazoak konpontzeko irtenbideak proposatuz. Txostena aztertu ondoren, neurri hauek hartzeko baimena eskatzea erabaki da:

- 6-8 baliza malgu (H-75) jartzeko, jotzeko arriskua daukaten balkoien parean.
- Errepidean margotu oinezkoek daukatela lehentasuna, espaloiak meharrak direlako.
- Zebrabideak margotu.
- Abiadura murriztu zeharbidean: 30 kilometro orduko.

5. Aho batez erabaki da *Medikuaren etxeari* buruzko bilera bat egitea Elgorriaga eta Zubietako Udal-ordezkariekin.

6. Aurtizko Ostatuko maizterrekin izandako bileraren berri eman dute alkateak eta Jagoba Manterolak. Kontratuko laugarren klausula argitzeko beharra ikusi zen, instalazioak eta altzariak arautzen dituen. Aho batez erabaki da kontratua aldatzea, klausula hura horrela idatziz:

“LAUGARRENA. INSTALAZIOAK ETA ALTZARIAK.

Kontratuari erantsi zaio inbentarioa, eraikinean dauden hornikuntzak eta altzariak zehaztuz. Instalazioen egoera ere zehazten da inbentario horretan.

Udalak utzitako instalazioak, tresnak eta altzariak egoera onean zaindu behar ditu adjudikazio-hartzaileak, euren ohiko erabilerarako bakarrik erabiliz. Elementu guztiak alokairuaren momentuan zeuden eran zaintzeko behar diren konponketa guztiak bere kontura egin beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak ordainduko ditu ere materialen eta altzarien berriz jartzeak. Makinak zahartuta gelditu direlako aldatu behar baldin badira, errentatzailearen kontura izango da, errentariak gaizki erabiltzeagatik hondatutakoan izan ezik.

Adjudikazio-hartzailea behartuta dago honako gastu hauek zuzenean ordaintzera: Aurtizko Ostatuko argindar, gas, telefono, ur zerbitzuak, estolderia eta zabor bilketa gastuak, eta negozioari dagozkion beste gastu guztiak. Bere kontura izango dira ere tratatutako hodi eta hustubideak libratzea eta konpontzea, eta entxufeak, pertsianak, sanitarioak, iturriak, giltzak eta bestelako balbula, pintura eta dekorazioa, leihoak, ateak, eta abar apurtutakoan edo matxuratutakoan konpontzea.

Udalak ordainduko ditu mantentze eta zaintze gastuak, eraikinaren egitura, konfigurazioa, izaera eta erresistentzian eragina baldin badute. Adibidez: teilatua, fatxadak, ...



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du aldaketarik egin lokalak, instalazioak eta zerbitzuetan, Iturengo Udalak espreski baimendu gabe. Nolanahi ere, Udalaren baimenarekin egiten diren obrak jabetzaren onerako geldituko dira, eta kontratuaren bukaeran Udalak ez du kalte-ordainik ordainduko haiengatik.

Instalazioen egoerari buruzko azterketa urtero egingo du Iturengo Udalak eta akta bat egingo da, espedienteari erantsiko zaiona. Akta hori sinatuko du adjudikazio-hartzaileak ere.”

Gai Zerrendatik kanpo, presazkoa dela aitortuz, hirigintza hitzarmenari buruzko agiriak aztertu dira, Latsagako U.E. 2ko birparzelazioa eta urbanizazioa aurrera eraman ahal izateko. Iturengo Udala, P.M.E., I.A.M. eta L.M.A.V. dira sustatzaileak. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hirigintza hitzarmenari hasierako onespina ematea, espedientea abiarazteko baizik ez.
2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hogeitun egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

7. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:05ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.